



# AZPEITIA



Euskadiko

**XVI.**

Euskal

Antzerki

Topaketak

1998ko udazkena • Urriaren 16tik abenduaren 21era




## Kartel lehiaketa, antzerki topaketen atarian

Euskadiko Euskal Antzerki Topaketen XVI. ekitaldia urriaren 16an hasiko bada ere, aurretik, jendaurrera azaldu baino lehen beste hainbat lan egin behar izaten da. Horien artean, urteroko antzerkien kartel adierazlea da. Beti bezala, hainbat jendek bere lanak aurkeztu ditu Azpeitiko Udaleko kultura sailean eta denen artean, bat aukeratzeko lantegi gogorra izan dute epaimahaikoek. Garailea, Mikel Arraunz Iturrioz urretxuarra izan da.

Lehiaketa irekia izaten da eta eskatzen den arauetako bat, Euskadiko Euskal Antzerki Topaketen logoa eta Azpeitiko Udalaren armaria agertzea da. Hortik aurrera, bakoitzaren irudimenak balio du. Irudimenak eta eskuak, noski. Eta aurten, esku ederra izan du Mikel Arraunzek. Jadantik prest dago merezitako saria jasotzeko!

**EUSKADIKO  
XVI. EUSKAL  
ANTZERKI  
TOPAKETAK**



EUSKADIKO  
EUSKAL  
ANTZERKI  
TOPAKETAK  
AZPEITIA




AZPEITIKO  
UDALA



eguerdiko 13:00etan, Udal Areto Nagusian

EUSKADIKO  
XVI. EUSKAL  
ANTZERKI  
TOPAKETAK




AZPEITIA  
1998ko udazkena

Euskadiko XVI.  
Euskal Antzerki Topaketan  
Aurkezpena eginez  
XVI. Edizioari  
hasera emango zaio.

ostirala  
**16**  
Urriak

## URRIA

- 16** ostirala 13:00etan. Udal Areto Nagusian **EUSKADIKO XVI. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETEN AURKEZPENA** — 4. or.
- 17** larunbata 21:30etan Zelaixko Antzokian **"Itziar" Euskal Kamara Opera** **Sarobe** — 29. or.
- 24** larunbata 19:00etan Zelaixko Antzokian **Hika** antzerki taldea "Xagukumeak" — 10. or.
- 31** larunbata 19:00etan Zelaixko Antzokian **Markelino** antzerki taldea "Kartoi biraka" — 11. or.



- Antzerki Profesionala — 10-17. or.
- Antzerki Amateurra — 18-21. or.
- Omenaldiak eta Irrati Lehiaketa — 22-23. or.
- Eskola Antzerki Topaketak — 24-25. or.

## AZAROA

- 7** larunbata 19:00etan Zelaixko Antzokian
- 13** ostirala 16:00etan Enparan Nagusian
- 14** larunbata 21:30etan Zelaixko Antzokian
- 20** ostirala 16:00etan Enparan Nagusian
- 20** ostirala 21:30etan Enparan Nagusian
- 21** larunbata 19:00etan Zelaixko Antzokian
- 27** ostirala 16:00etan Enparan Nagusian
- 27** ostirala 21:30etan Enparan Nagusian
- 28** larunbata 21:30etan Zelaixko Antzokian



# AURKIBIDEA

## AZAROA


- 7 larunbata 19:00etan **Chimères** antzerki taldea "Haurrak Zutik" — 12. or.  
Zelaitxo Antzokian
- 13 ostirala 16:00etan **Irrati Lehiaketa** — 23. or.  
Enparan Dorretxean
- 14 larunbata 21:30etan **Ados** antzerki taldea "Desperrados" — 13. or.  
Zelaitxo Antzokian
- 20 ostirala 16:00etan **Irrati Lehiaketa** — 23. or.  
Enparan Dorretxean
- 20 ostirala 21:30etan **Oihulari Klown** antzerki taldea "Klownferentzia" — 14. or.  
Enparan Dorretxean
- 21 larunbata 19:00etan **Porpol** antzerki taldea "Xolak badu lehoien berri" — 15. or.  
Zelaitxo Antzokian
- 27 ostirala 16:00etan **Irrati Lehiaketa** — 23. or.  
Enparan Dorretxean
- 27 ostirala 21:30etan **Koldo Amestoy** "Apanize" — 16. or.  
Enparan Dorretxean
- 28 larunbata 21:30etan **Goizeko Izarra** antzerki taldea "Ama Pasota" — 18. or.  
Zelaitxo Antzokian

## ABENDUA

- 3 osteguna 11:00etan eta 15:30etan **Eskola Antzerkia** — 24. or.  
Zelaitxo Antzokian
- 3 osteguna 19:00etan **Omenaldia** Ander Arzelusi eta Antonio M. Labayeni — 22. or.  
Enparan Dorretxean  
*Omenaldi ekitaldia:  
Ekitaldi akademikoa eta liburuen banaketa  
Antxieta Taldeak "Neskamearen marmarrak". (A. Arzelusena)  
E.A.T.A.E.koek "Petrikillo". (A. M. Labayenena)*
- 4 ostirala 16:00etan **Irrati Lehiaketa** — 23. or.  
Enparan Dorretxean
- 5 larunbata 21:30etan **Tantaka & 3XTR3S** antzerki taldea "Dakota" — 17. or.  
Zelaitxo Antzokian
- 7 astelehena 21:30etan **Ereintza** antzerki taldea "Urkiola" — 19. or.  
Zelaitxo Antzokian
- astelehena 11:00etan **E.A.T.A.E.koen Batzar Nagusia**  
Aitonena lokalean
- 9/10 asteazkena eta osteguna 11:00etan eta 15:30etan **Eskola Antzerkia** — 24. or.  
Zelaitxo Antzokian
- 11 ostirala 16:00etan **Irrati Lehiaketaren Finala** — 23. or.  
Enparan Dorretxean
- 12 larunbata 21:30etan **Goizeko Izarra** antzerki taldea "Dizdira, beti, ez da urre" — 20. or.  
Zelaitxo Antzokian  
*estreinaldia*
- 19 larunbata 21:30etan **Lakrikum** antzerki taldea "Ez dira berdinak, antzekoak baizik" — 21. or.  
Zelaitxo Antzokian  
*estreinaldia*
- 21 astelehena 19:30etan **XVI. Antzerki Topaketaren amaiera Sari Banaketa** — 26. or.  
Udal Areto Nagusian



# Antzerki garaia iritsi da



Jose Mari Bastida  
Azpeitiko Alkatea

XVI. Euskadiko Euskal Antzerki Topaketak ateak irekitzera doaz. Te-  
loiak zabaldu eta aktore guztiak prest daude dagoeneko ekitaldi honi  
sarrera emateko. Ohore bat da niretzat, Alkate bezala, Euskal Herri  
osoan dauden euskarazko antzerki topaketa bakarrak ospatzea Az-  
peitian. Gure hizkuntza mantendu eta aurrera jarraitzeko apur bat jar-  
zen dugulako.

Azpeitiko Udalak ahalegin handiak egiten ditu puri-purian dauden  
antzerki lanak eta taldeak hemen izatearren. Horrek dakarren lante-  
gia, topaketak baino askoz lehenagotik hasten da, jakina, eta espero  
dut, XVI. ekitaldi honen ondoren, guzti hori eskertzeko moduan izan-  
go zaretela. Adin guztietako publikoarentzat antzerkiak ekartzen saia-  
tu gara, nahiz haur, gazte edota ez hain gazteentzat. Iaz egin genuen  
antzerkia udazken osora zabaltzeko saiakera eta izandako arrakasta-  
ren ondoren, aurten bigarren aldiz froga berean murgilduko gara. Ziur  
nago antzerkizaleok ez duzuela izango irribarrea urrun eta norbaiti al-  
gararen bat sortaraztea pozgarria da.

Iazko arrakastaren ondoren, gure herrian, beste edozein jai bezala,  
antzerkien ospakizun hau ere, tinko finkatuko delakoan nago, dagoe-  
neko finkatua dagoela ez esatearren. Horrela, hostoak erortzen hasi  
bezain laster, udazkena antzerkiekin lotuko dugu azpeitiarrok.

Denak prest daude, dena antolatua dago, ordu, leku eta ekitaldi guz-  
tiak lotu dira. Aktoreak ere taularatu dira dagoeneko. Ongietorriak az-  
peitiar eta inguruko guztiak, antzerkizaleak hitz baten. Goza ezazue  
momentu hau, kontakizunetan sartu eta barre, algara edota malko  
batzuek, zergatik ez, isur itzazue. Azken finean, zuek antzerkia senti-  
tzea nahi dugulako. Ongi etorri eta hobeto pasa dezazuela!!!





## Antzerkiaz gozatzeko ordua heldu zaigu

Nekane Larrañaga  
*Kultura Zinegotzia*

Azpeitian egiten diren Antzerki Topaketek XVI. edizioa betetzen dute aurtengoan. Edizio honetan ere, aurreko urteko esperientzia positiboki baloratu ondoren, bide beretsua egitera datorkigu. Aurtengoan ere udazken osoan izango dugu beraz, Azpeitian antzerkia ikusteko parada, eta ez nolana hiko gainera.

Euskadi mailan euskaraz egiten den goi mailako antzerkiaren bilduma bat egin dugu eta zuei eskeini nahi genizueke, bai profesional mailan eta bai amateur mailan ere. Aipatzekoa da, amateur mailan hiru antzerki estreinaldi izango ditugula Azpeitian.

Baina ohiko emanaldiez gain, baditugu aurtengoan ere berrikuntzak. Topaketei hasiera emateko antzerki eta musika biltzen dituen ikuskizun bat eskeini nahi dizuegu, ITZIAR opera hain zuzen. Eta bestalde, udazkeneko zenbait larunbatetan FAMILIARTEKO ANTZERKIA programatu dugu. Gaztetxo nahiz helduentzako dira ikuskizun hauek, baina nolabait haur eta gaztetxoak beren gurasoekin eraman nahi genituzke Zelaitxora antzerkia ikustera. Horretarako ikuskizun hauen orduategia arratsaldeko 7etara aurreratu dugu.


Aurreko urtean bezalaxe, Zelaitxoaz aparte Enparan dorretxean ere antolatuta dira formato txikiko antzerkiak ostiral gauetan. Klowna eta ipui kontalaritza izango dira bertan.

Omenaldiei dagokionez berriz, aurtengoan, orain dela 100 urte, euskal antzerkigintzaren garai oparo baten adierazle ditugun bi antzerkigile izango ditugu gogoan, Ander Arzellus eta Antonio Maria Labayen hain zuzen ere. Bertan izango ditugu egile hauen senitartekoak, nahiz Donostia eta Tolosako udal ordezkariek ere, beraiek ere parte hartu baitute antzerkigile hauei buruz argitaratu dugun liburuan.

Eta azkenik, ohiturazkoa bihurtu zaigun Irrati Lehiaketa ere, liburu honen inguruan izango da, gaur eguneko gaztetxoek antzerkigile garrantzitsuen hauen bizitza eta lana ezagutzeko parada egokia izan dezaten.

Heldu eta gaztetxoentzat aukera ezberdinak eskaintzea izan da beraz aurtengo gure helburua. Zuen atseginekoak ote diren jakitea da falta zaiguna. Baina hori Santo Tomas egunean jakingo dugu, antzerki bakoitzak ikusleen aldetik jasotako puntuaketa orduantxe ezagutuko baitugu. Ikusleonek eritziak erabakiko du azkenean nor izango den aurtengo topaketetako antzerki amateur eta antzerki profesional arloko lanik gustokoena.







# lar” euskal kamara opera

Artadik eta Iranzuk elkar maite dute, baina Artadiren aitak bere alaba lur-jabe aberats batekin ezkontzeko hitza emana dauka. Iranzuk dirua lortzeko beharra ikusten du bere maitearekin ezkontzeko bada eta, basoko izpirituek zoraturata, Itziarko Ama Birjinaren bitxiak ohosteko asmoa agertzen du. Azken unean, hala ere, bere asmo horretan atzera egiten du eta Aita Gasparrek, bere eskuetan dituen agiri batzuen bidez, frogatu egin baitezake Artadiren aita iruzurtia dela, jadanik hilda dagoen egiazko Artadiko jaunaren aberastasun eta ondasunak bereganatu zituenak. Zaharrak, bere burua txantajeatua izateko arriskuan ikusirik, alabaordea Iranzurekin ezkontzeko baimena ematen du.

## Banaketa:

**Artadi:** Isabel Alvarez  
**Iranzu:** Fernando Idiakez  
**Artadiren aita:** Josu López Soraluze  
**Aita Gaspar:** Iñigo Laboreria  
**Aktorea:** Pedro Arnaez  
**Koroak:** Capilla Peñaflorida:  
 Karmele Iriarte  
 David Azurza  
 Jon Etxabe  
 Gonzalo Ubani  
**Musika transkripzioa:** Zuriñe F. Guerenabarrena  
**Musika aholkularitza:** Eresbil  
**Musikariak:** Quinteto de viento "Pablo Sorozabal"  
**Organista:** Gerardo Rifón  
**Eszena zuzendaritza:** Enrique Santiago  
**Musika zuzendaritza:** Juan Jose Mena eta Juan Jose Ocon

## Fitxa teknikoa:

**Eszenografia eta jantziak:** Adrian Ferrero  
**Jantzigintza:** Josu Lopez Soraluze  
**Maskara egitea:** Skadis  
**Argiztapena:** Juan Jose Llorens  
**Argiztapen teknikaria:** Alberto Mendikuze  
**Montaje:** C.A.E. Sarobe  
**Eszena zuzendari laguntzailea:** Pedro Arnaez  
**Argazkia:** C.A.E. Sarobe  
**Makilladora:** Anhoa Ziaizeta  
**Produktzioa:** C.A.E. Sarobe  
**Zabalketa:** Gonzalo Ubani

larunbata

17

urriak




19:00etan, Zelaitxo Antzokian

HIKA

antzerki profesionala

# “Xagu kumeak”



Gaur arratsaldean haur antzerkia omen dago herriko antzokian. Maixa eta Kontxu (Xagukumeak) urduri daude.

Xaguamatxok ez du nahi bakarrik atera daitezen, xagu-harrapatzailea edozein momentutan ager daiteke eta.

Xaguamatxo bere eguneroko lo kuluxkan dago eta...  
... ixo! antzerki emanaldia hastera doa.

#### Fitxa artistiko eta teknikoa

**Antzezleak:** Belen Cruz, Agurtzane Intxaurreaga, Mikel Laskurain

**Eszenografia eta Atrezzoak:** Hika

**Musika:** Joxan Goikoetxea

**Hizkuntzako begiralea:** Ritxi Lizartza

**Soinu teknikaria:** Miren Gojenola

**Egilea eta zuzendaria:** Agurtzane Intxaurreaga

**Salmenta:** Belen Cruz

Urriak 24 larunbata

24

Urriak



antzerki profesionala

MARKELIÑE

19:00etan, Zelaitxo Antzokian

# “Kartoi biraka”

Jatorrizko ikuskizun honek Markeliñeren ohizko ikutua du. Hau da, irudi eta soinuen bidez idorokitua, hitzen beharrik gabe.

Gure sortze-lanak ustekabea eta eszenatokiko giro magikoa bilatzen ditu; aktore eta osagai eszenikoekin batera, antzerki jolas jatorra egiteko.

Edozeinentzat gomendagarria bada ere (beti izaten dugu liluratutako umerik), 6tik 12ra bitartekoentzat da egokia batez ere.

## Fitxa artistiko eta tekniko

**Gidoia eta zuzendaritza:** Markeliñe

**Antzezleak:** Jon Kepa Zumalde, Ana Meabe, Paco Trujillo


**Eszenografia:** Marijo de la Hoz

**Jantziak:** Paqui Rico

**Argien diseinua:** Aitor Agorria

**Hizkuntza:** Hitzik gabe

**Iraupena:** 60 minutu



larunbata

31

Urriak


=



19:00etan, Zelaixo Antzokian

CHIMÈRES antzerki profesionala

# “Haurra Xutik”



Azaroak 7 larunbata

12

Hasieran, oraino dena amets denean, lehen sentimendu bat badago, ttikia baino egiazkoa; ikuskizuna honen gainean eraikiko da. Hona hemen zenbat irudi, zenbat azalpen antzerki obra honen aurkezpen laburra egiteko.

Zerua eta gudronaren (asfaltoaren) arteko mundu bat. Gudrona puxka bat, kale, aparkaleku edo bide zati bat. Atzean, zeru deigarri bat, zabaldua eta lirikoa, esperantzaren seinale.

Bertze ezer ez.

Apaindurarik ez baina eremu biluzi bat, antzez-jokoaren zerbitzuko, koloreak hartzeko zai dagoen oihai xuri baten antza.

Giro musikal bat: Tom Waits, Lluís Llach, Pascal Gaigne eta bertze... Erlats edo ezitia, oldarkorra, agresiboa edo samurra. Batzuetan umorea.

Musikak presentzia handia dauka, tokiari josia da...

Ikuskizun hau publiko zabal batentzat egina da, 9/10 urtez goragoko haurrentzat, gazteentzat eta jende helduarentzat hain zuzen.

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Moldakuntza eta zuzendaritza:** Jean-Marie Broucaret

**Eszenografia eta jantziak:** Anne-Marie Pihouée

**Maskarak eta osagailuak (atrezkoak):** Annie Onchalo

**Musika:** Pascal Gaigne

**Argiak:** Pierre Auzas

**Teknikaria:** Pantxoa Claverie

**Antzerkilariak:** Olatz Beobide eta Txomin Heguy

ant

‘

Hiri ba  
tzen d  
ere, e  
moez  
ki ber  
gertat  
egingo  
Baina  
dira e  
amait

Fitxa

Testu  
Euska  
Banak

Eszen  
Jantzi  
Argizt  
Soinu  
Musik  
Zerbi  
Eszen  
Diap  
Disen  
Argaz  
Ahotz

Ekoiz  
Ekoiz  
Ekoiz  
Zuze  
Zuze



antzerki profesionala

ADOS

Larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian

# “Desperrados”

Hiri baten historia milaka istorio txiki edota handiz osatzen da. Gidoi jakin bateko istorioak, egunero gurutzatuta ere, elkar sekulan ezagutuko ez duten pertsonaia anonimoen osatutakoak. Denbora berean, etxe berean, lantoki berean, zinematokiko alboko jarlekuan, ohe berean... gertatuta ere, askok eta askok, ziurrenik ez dute bat egingo.

Baina, batzuetan, txirripaz, behin eta berriro gurutzatzen dira eta, hainbeste gurutzatu beharrarekin, korapilatuta amaitzen dute.

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Testua:** Jose Antonio Vitoria, Garbiñe Losada

**Euskarazko bertsioa:** Leire Egurrola, Begoña Losada

**Banaketa:** Nagore Aranburu, Ana Elordi, Koldo Losada, Ana Pimenta, Anartz Zuazua

**Esenografia Diseinua:** La gallina ciega, Garbiñe Losada

**Jantzigintza:** La gallina ciega

**Argiztapen Diseinua:** Carlos Salaberri

**Soinu Banda:** Joxean Olaberri

**Musika:** Koma

**Zerbitzu teknikoak:** Eskena iluminación

**Esenografia errealizazioa:** Ikaro

**Diapositibak:** Golfo's

**Diseinu Grafikoa:** Javier Balda

**Argazkiak:** Jose I. Hernandez

**Ahotsak:** Fernando Mikelajaregi, Jose Joakin Forkada, Itziar Suarez

**ekoizpen laguntzailea:** Jon Ezkurdia

**ekoizpena:** Ados teatroa S.L.

**ekoizpena eta banaketa:** Santiago Sueiras


**Zuzendari laguntzailea:** Berta Osés

**Zuzendaria:** Garbiñe, Losada

larunbata

14

Azaroak






21:30etan - Enparan Dorretxean

OIHULARI CLOWN antzerki profesionala

# “Klownferentzia”



Azaroak 20 ostirala

Amorrazioz bizitzearen arteari buruzko klown parodia dugu. Bide batez esateko, ulertugabeko artea. Marrubi eta Flipo munduko klownferentziante onenak direnaren ustean daude. Entzulegoari hitzegiteko beti prest... edozer gauza, gaiari buruz! Izan ere gaiak, benetan ez du inolako garrantzirik. Kontatzen duguna, kontatuta ere, norbere buruari buruz hitzegitera iristea litzateke garrantzitsuena. Azalpenak eman baino, premiazkoa, ezinbestekoa dena, norbere burua azaltzea litzateke.

Ikuskizun honetan, ikuslegoa gogoeta ludiko esistentzialista honen konplize gisara hartua izango da. Benetan, zorientasunaren bila al gabiltza? Burutzen ditugun gure ekintzen kontzientziarik ba al dugu? Ezin al zitekeen har bilatze hau, endemikoa den egunerokotasunaren patologi baten sintoma modura?

Inolako zientzi nahirik gabe, izan ere agian norbaitek zehaztasun eta zorrotzasun zientifikoa beste nolabaiteko zorrotzasunarekin nahas baitezake eta... Horrela bada, Marrubi eta Flipo denbora falta dela eta gure atzetik darabilgun obsesioari buruz, harremanetako arazoei buruz, bihotzaz entzuteko gaitasunaren inguruan suertatzen zaizkigun zailtasunei buruz, miopia espiritualei buruz eta beste hainbat huskeria transzendentali buruz mintzatuko dira, gaiari ihes egingo diote eta ez dira bat etorriko. Hau guztia helburu bakar batekin: zu dibertitzea eta zorienttua izateko nahiarekin bazabiltza, asmo hori burutik kentzea.

## Fitxa artistiko eta tekniko

**Egile eta zuzendaria:** Virginia Imaz

**Klownak:** Axen Escalada eta Pedro Arnaez (Marrubi eta Flipo)

**Hizkuntza:** Euskaraz eta gaztelaniaz

**Ikuslegoa:** Gazte eta helduei zuzendua. 16 urtetik gora

**Iraupena:** Ordu bete



# a”


# “Xolak badu lehoien berri”

Xola txakurremetxoa da, arratoi-txakurra, oso pertsonalitate nabarmenekoa, geldiezina, argia, zirti-zartakoa, erantzunkoia eta burugogor xamarra. Sekretu on bat edukitzeko amorratzen dago, kontaezina... baina nabaritzen direnetarikoa.

Xolak lehoiei buruz hitz egiten entzuten du eta bere nahi eta amesketak martxan jartzen dira bere bizitzaren abentura sortzeko. Lagunez eta hain lagun ez direnez inguratutik, Xolak ezezagunaren aurrean arriskatzen ikasiko du eta honek erabakiak harraraziko dio, bere burua den bezala onartzera eramango duten erabakiak, gainera.

“Xolak badu lehoien berri!” deskubritzeaz dagoen munduak haurrengan sortarazten dituen arazo eta beldurrak ditu gai.

“Xolak badu lehoien berri!” musika-antzespena da, alai, samurra, kolorezalea, biziz betea eta batez ere... oso dibertigarriaaaaaa!!!!



## Fitxa artistiko eta tekniko

**Egokitzapena eta dramaturgia:** Carmen Ruiz Corral

**Aktoreak:** Itziar Urretabizkaia, Eneko Amezketa, Luis Alberto Baztan

**Zuzendaria:** Carmen Ruiz Corral

**Gorputz espresioaren zuzendaritza:** Mar Navarro

**Euskarazko itzulpena:** Julia Marín

**Euskeraren arduraduna:** Julia Marín

**Musika:** Francisco Ibáñez

**Esenografia Diseinua:** Javier Larreina

**Argiztapen Diseinua:** Javier Ulla

**Jantzigintza:** Teresa Antón

**Esenografia Errealizazioa:** Carlos Pérez Donado

**Makilladora:** Esther Vilar

**Ilustrazioak:** Mikel Valvere

**ekoizpen Exekutiboa:** Javier Alkorta

**Zuzendari Laguntzalea:** Beatriz Mtz. de Antoñana

**ekoizpen Idazkaritza:** Txaro Martínez

**Publizitate Diseinua:** Helíce Creativos

**ekoizpena:** Porpol S.C.

larunbata

21

Azaroak



ostirala 21:30etan, Enparan Dorretxean

KOLDO AMESTOY antzerki profesionala

# “Apanize”

Apanize artzain gaztea, mendi goian, mairu-baratze-ko harri baten gainean eserita dago, gogoetetan... Mendi bizkar urdinaren atzean dago zuloa. Mari, izadi eta gaueko irelu, izpiritu eta indar guzien ama jainkosa, lurreko erreginaren leizea. Kobazulo horretan jaiotzen dira eguzki, ilargi, trumoi eta ekaitzak; hortik ere ateratzen behin, Herensuge, dragoi hegaldun handia, Xibaldi, Apanizeren aitona ikusi zuena...

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Ipuina eta kantua:** Koldo Amestoy

**Musika:** Pascal Gaigne

**Zuzendaritza eta argi kreazioa:** Edi Naudo

**Jantzien aukeraketa:** Eli Elizondo

**Iraupena:** 75 minutu

**Mamia:** espektakulo honetan, hitza eta musika elkar deitu, hurbildu, nahastu eta azkenean, bategirik dabilta, euskal mutil gazte baten bideko lagun, herriko gogoia eta egunerokoaren bidesketan zehar

**Publikoa:** 16 urtetik goragoko jende heldua

Azaroak 27 ostirala

antzerki

Dakotaren abiap  
Zoritxarreko hai  
tsatzen du bere  
Amets bateko p  
irudimena berot  
honen eraginez  
nak betetzen di  
tuz joango da e  
ren eta fantas  
bere bizitza os

## Fitxa artis

**Egilea:** Jordi G

**Itzulpena:** Rit

**Aktoreak:** Ra

Jos

Ait

Jos

**Zuzendaria:**

**Eszenografia:**

**Jantziak:** Pe

**Argiztapena:**

**Eszenografia:**

**Diselnu graf**

**Argazkiak:** M

**Ekolzipena:**

**Ekolzipen ex**

**Zuzendarl a**

**Ekolzipen la**

**Gestioa:** Ma

**Jantzien ko**

**Soinu tekn**

**Artezeleak:**

**Prentsa bu**

**Banaketa:**



sionala

antzerki profesionala **TANTTAKA & 3XTR3S**

Larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian

# “Dakota”


Dakotaren abiapuntua ametsen munduan kokatzen da. Zoritzarreko hainbat koinzidentziatan oinarritua, haginlari batek pentsatzen du bere ametsak etorkizuna iragartzen dutela.

Amets bateko pertsonaia bat benetakoa dela ikusten duenean bere irudimena berotu eta lausotu egiten da, obsesiora iritsiz. Gertaera honen eraginez, estrategia xelebreak prestatzen ditu bere iragarpenak betetzen diren ala ez egiaztatzeko. Pixkanaka-pixkanaka ezabatuz joango da erreallitatearen eta ametsen arteko muga, irudimena eta fantasiaren artekoa, komediaren eta dramaren artekoa eta bere bizitza osoa amildegirantz eramango du. Eroriko al da?

## Fitxa artistiko eta teknikoa

- Egilea:** Jordi Galceran  
**Itzulpena:** Ritxi Lizartza / Aitzpea Goenaga  
**Aktoreak:** Ramon Agirre - Gilermo Morroia  
 Joseba Apaolaza - Hipolito Tolosa  
 Aitzpea Goenaga - Laura  
 Jose Ramon Soroz - Guardia Zibila  
 Erizaina  
 Gerrako elbarria
- Zuzendaria:** Josep Maria Mestres  
**Esenografia:** Montse Amenós  
**Jantziak:** Pepi Aubia  
**Argiztapena:** Ignasi Morros  
**Eszanografia egilea:** Contracorrent SCP  
**Diselnu grafikoa:** Miquel Llach  
**Argazkiak:** Manuel Diaz de Rada, Carlos Corbella  
**Ekolzipena:** Tanttaka teatroa eta 3XTR3S  
**Ekolzipen exekutiboa:** Fernando Bernués / Koro Etxeberria  
**Zuzendari laguntzalea:** Olatz Beobide  
**Ekolzipen laguntzalea:** Elena Loyarte  
**Gestioa:** Maite Gorrotxategi  
**Jantzien konpokatzaileak:** Atoia Arandigoien  
**Solnu teknikaria:** Joxean Olaberri  
**Arteziak:** Ainhoa Fraisoli, Mohamed Achtot  
**Prentsa bulegoa:** Joseba Gil  
**Banaketa:** J.P. Producciones S.L., Anexa espectacles S.A.

Abenduak 5 larunbata





Larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian

GOIZEKO IZARRA

antzerki amateurra

# “Ama pasota”

Polizari ihesika doan emakume bat elizan sartu da. Non ezkutaturik bilatzen ez eta konfesatzea erabaki du.

Konfesonarioan dagoen apaizari kontatu dizkio bere bizitzako gertaera guztiak. Emakume langileari etxeak eta familiak eranstean dizkioten kargak. Ama izateak dakarzkion buruhausteak eta dudak. Semea babestu nahian deskubritu dituen pertsona eta bizimodu berri eta harrigarriak. Denboraren joanean bizitako esperientziak dakarkiote bizimodu aldaketa.

Ekitaldi batean burutzen da obra osoa. Bakarriketa arina. Ironia finez adieraziko dira eguneroko bizimoduan hain arrunt eta ohiko egiten zaizkigun gertaerak. Gizarteari egindako kritika zorrotza dago jasoa “Ama pasota” obran, baina batik bat, denboraren joanak familian ezarri dituen rolen karikatuta naturaltasunez agertu nahi da, esperpentora iritsi gabe.

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Egilea:** Dario Fo

**Ama pasota:** Itziar Egurbide

**Argiak eta musika:** Justo Urkiri / Joakin Larrañaga

**Esenografia eta atrezzo:** Nerea Illarramendi

**Makilaia:** Apain Basterretxea

**Jantziak:** Pakita Itxaso

**Laguntzaileak:** Narzisa Urreisti eta Amaia Urreisti

**Zuzendaria:** Arantza Ugarte

larunbata

28

Azaroak



# “Urkiola”

XVII. mendean koka daitekeen kontakizun honetan sorgin munduak Durangoaldeko baserriarrengan izan zezakeen eragina eta horren ondorioak isladatzen dira antzezlan osoan zehar. Sorginei buruzko esamesak, Inkisizioaren erasoak, ihesaldiak Urkiola aldera erakarri ote dituen susmoak eta zurrumurruek zabalduz doaz. Giro horretan, hainbat baserritan gertatzen diren oker eta ezbeharrak sorginei leporatzen dizkiete. Herri-tarren gehiengoak onartzen ez dituztela dirudien arren badira aldeko jarrera erakusten dutenak ere... Giro horretan kokatua da Urkiola antzezlan.

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Egilea:** Imanol Elias

**Aktoreak:** Sabin Irastorza - Joxe, Agorretako aitona  
 Oneka Oliveri - Malen, Joxeren alaba  
 Denis Itxaso - Martin, Malenen senarra  
 Jaione Pikabea - Ana, Joxe eta Malenen alaba  
 Imanol Escudero - Mikel, Anaren neba  
 Agurne Etxebeste - Katalin, Malenen laguna  
 Olatz Teiletxea - Iñaxi, Malenen laguna  
 Dabid Gomara - Bautista, Martinen laguna  
 Arantza Perez - Xukelai, Sorgin lanetan diharduena  
 Jesus Izagirre - Zukatz, Xukelairen laguna  
 Eñaut Mitxelena - Joakin, Anaren bila dabilena  
 Iñaki Tolaretxipi - Xanti, Ana aurkitzen duena

Abenduak 17 astelehena



larunbata 21:30etan, Zelaltxo Antzokian

GOIZEKO IZARRA

antzerki amateurra

# “Dizdira, beti, ez da urre”

estreinaldia

larunbata

12

Abenduak

Publizitate agentzia batean gaude. Lan harremanetan eta giza harremanetan sortzen diren gorabeherak kontatzen dira “Dizdira, beti, ez da urre” obran. Nagusiek menpekoekin dituzten jarrerak eta hauen erantzunak, lankideek elkarrekiko dituzten lehiak eta inbidiak, mailtasun harreman nahasiak, zeloak, ikusi ezinak... Den-dena umore eta ironia ikutuz josita.

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Egilea:** Arantza Ugarte

**Aktoreak:** Josu Andonegi - Argi

Izaskun Beristain - Maider

Mila Mendizabal - Ester

Justo Urkiri - Manu

Izaskun Ituarte - Idazkaria

Eusebio Azkue - Jefe

Jone Gonzalvos - Mirari

Itziar Egurbide - Neska bideolaria

Andoni Gonzalvos - Mutil bideolaria

Arantza Ugarte - Fidela

Joakin Larrañaga - Basaburua

**Argiak eta musika:** Kizkitza Maruri / Andoni Basterretxea / Yolanda Egurbide

**Eszenografia eta atrezzoak:** Nerea Illaramendi

**Jantziak:** Pakita Itxaso

**Makilaia:** Apain Basterretxea

**Laguntzaileak:** Nartzisa Urreisti eta Amaia Urreisti

**Musika eta kartela:** Justo Urkiri



ateurra

antzerki amateurra

LAKRIKUM

Larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian

# re”

# “Ez dira berdinak, antzekoak baizik”

estreinaldia

Edozein hiritako edozein etxe arrunt batetako familia arrunt bat: gurasoak eta bi alaba. Edozein hauen inguruan hiru izen: Aitor, Iñaki eta Pedro.

Hortik haurrera komedia bilaka litekeen istorio sakon bat, drama bilakatu litekeen istorio alai bat. Maitasunak sor ditzakeen zauri eta minak baitira sendatzen zailenak (gaitzenak), maitasunaren inguruan sor litezkeen kezkek baitira garrantzen zailenak.

Hortik aurrera, zuk zeuk atera zeure ondorioak.

### Fitxa artistiko eta teknikoa

- Idazlea:** Alaitz Olaizola
- Zuzendaria:** Idoia Uranga
- Eszenografia:** Andres Maiz
- Argiak:** Antxieta antzerki taldea eta Lakrikum antzerki taldea
- Argien montaia:** Edi Naudo
- Diseinu grafikoa:** Andres Maiz
- Iraupena:** Ordu eta erdi

larunbata

19

Abenduak

21






osteguna 19:00etan, Enparan Dorretxean

## OMENALDIAK

omenaldi ekitaldia:  
Ekitaldi akademikoa eta liburu banaketa  
Antxieta Taldeak "Neskamearen marmarrak" A. Arzelusena  
E.A.T.A.E.koek "Petrikillo" A. M. Labayenena

### Ander Arzelus (1898-1949)



Donostian jaiotzen zen 1898an. Lehen ikasketak amaitu eta goi mailako ikasketak jarraitu nahi izan zituen baina lanerako bidea hartu behar izan zuen Donostiako Aurrezki Kutxan.

Anderrek bere lanen zati handi bat "El Día" egunkarian eskeini zuen, egunkari honek zuen euskerazko atal txoan.

Argia aldizkarian ere lanak argitaratu zituen eta Argiako zuzendari eta baita zuzendariorde postua ere bete zituen zenbait garatan.

Donostiako "Radio San Sebastián"ko asteazkenoroko irrati saioan ere parte hartu ohi zuen.

1936an guda hasi zen eta Ander Arzelus Eusko Alderdi Jeltzale Uri Batzarrekoa zenez heriotzarainoko gurutz bide neketsu bat hasi zuen. 1946an beste aldera ihesi joan beharra izan zuen.

Arzelusen antzerki lanen artean garrantzitsuak: *Gibelaundi*, *Neskamearen marmarrak*, *Kilkir abestua*, *Dirugosea*, eta abar.

Abertzaletasun grinak bultzaturik eta euskarari zion maitasunak eraginda euskerazko alor gehienak ikutu zituen, antzerkia ere tartean zegoelarik. Arzelusen lan guztiak onnari senda bat dute: euskararen erabilera.

### Antonio M. Labayen (1898-1994)



Antonio M. Labayen Tolosan jaio zen 1898an. Idazle bezala bere izenez aparte erabili zituen zenbait ezizenen artean hauexek aurki daitezke: *Aspaldiko*, *Ayanbe*, *Ibalan*, *Ibargi*, *Matxingorri*...

Mende erdi luzez euskal antzerkian murgildua ibili da eta maisu honen antzerki lanak eredugarriak izan zaizkigu.

Labayen jaunaren antzerki ibilbidea honela aurkeztuko dugu:

Antzerki hastapenak (1920-1936) bitarteko epe honetan 8 antzerki lan sortu zituen eta bi antzerki obra frantzesetik itzuli. Adibide batzuk: "Gizon bizarpeituti eta emazte bizarpeituti", "Mateo Txistu", "Iparragirre eta Iruxeme", "Maya"...

1936ko gerla gurzubidean lehen samina sortu zion. Sendiak zuen lantegian lan egiten zuen eta gerla sortzearekin Lapurdiko Sara herriskara joan zen bere sendiarekin. Zortzi urtez bertan bizitu zen. Gerla ostera berriro egoera zoroer baretu zenean berriro Tolosara itzuli zen, eskuartearen zenbait idatz-lan zituela, hauetako lan bat "Muga" deituriko antzerkia.

Bigarren epe honetan (1936-1965) Labayen jaunak 9 antzerki, ezberdinetakoak, (drama, komedia, e.a.) sortu zituen. Hala nola: *Jostuna*, *Galtzaundi*, *Su ta gar*, *Petrikillo*, *Lurrikara*, *Doménjon de Andia*...

Labayen jaunak bazekien antzerkiak euskal gizartearen izan behar zuen eragina: idazle eta antzerki sortzaile zenez gero gizarzteko zati baten kontzientzia izatea, nahiz eta honek nahigabe asko ekarri.

60. hamarkada oso gogorra egin zitzaion Labayeni, alde batek maitatzat zuten donostiarrek antzerki ez taularatzea eta bestetik giro politikoa eta honen eragina.

Garai honetakoak dira obra hauek: "Pestaburu", "California...ku,ku" eta "Muñagorri", beste batzuen artean.

"Muñagorri" antzerki drama historikoa bere azken antzerki obra da.

Abenduak 3 osteguna

Donostiako Antzerki idazle ospetsuak Topaketak liburu antolatu.

Irakaskuntza Zentroa bakarrik parte hartutore bat eta lan.

Parte hartzen duen D.B.H.ko 2. ziklo direnak izan behar izan behar Arzelus eta A. M. Labayenaren antzerkiak dituzte.

#### Honako egitaroak

Azaroak 13, osteguna

Azaroak 20, osteguna

Azaroak 27, osteguna

Abenduak 4, osteguna

Abenduak 11, osteguna

Irrati saio guztiak antzerkiaren izango dira.

Sariak abenduaren 11n Tomas egunean.

#### Epai-mahaia:

Pello Eiorza

Axen Egaña

Axen Escalada



banaketa  
"armarrak" A. Arzelusena  
abayenena

(1898-1994)



epe honetan 8 an-  
frantzesetik itzuli.  
mazte bizartsuti",  
"Maya"...

ortu zion. Sendiak  
rtzearekin Lapurdi-  
Zortzi urtez ber-  
eozar baretu zene-  
enbait idatz-lan zi-  
tzerkia.

h jaunak 9 antzer-  
sortu zituen. Hala  
illu, Lurrikara, Do-

gizartean izan be-  
ile zenez gero gi-  
eta honek nahi-

ayeni, alde bate-  
z taularatzea eta

aburu", "Califor-  
artean.

azken antzerki

## IRRATI LEHIAKETA

Enparan Dorretxean

Donostiako Ander Arzelus eta Tolosako A. M. Labayen idazle ospetsuak oroitaraziz, Euskadiko Euskal Antzerki Topaketak liburu bat atera du eta Eskola Irrati Lehiaketa antolatu.

Irakaskuntza Zentruren batean ikasten ari diren ikasleek bakarrik parte hartu ahal izango dute horretan. Irakasle-tutore bat eta lau ikasle izango dira taldearen partaide.

Parte hartzen duten taldeek D.B.H.ko 1. ziklotik D.B.H.ko 2. ziklo bitarteko ikasketak egiten ari direnak izan beharko dute. Lehiaketan, Ander Arzelus eta A. M. Labayen idazleak landu eta aztertuko dituzte.

### Honako egitaraua beteko da:

<b>Azaroak 13, ostirala</b>	Enparan Dorretxea
<b>Azaroak 20, ostirala</b>	Enparan Dorretxea
<b>Azaroak 27, ostirala</b>	Enparan Dorretxea
<b>Abenduak 4, ostirala</b>	Enparan Dorretxea
<b>Abenduak 11, ostirala</b>	Enparan Dorretxea <b>Finala</b>

Irrati saio guztiak arratsaldeko 16:00etatik 17:30ak artean izango dira.

Sariak abenduaren 21ean, Topaketen amaieran, Santo Tomas egunean emango dira.

### Epai-mahaia:

Pello Elorza	Azpeitiko Euskaltegiaren irakaslea
Axen Egaña	Antzerkiko Aholkularia
Axen Escalada	Azpeitiko zenbait talderen zuzendaria



RADIO POPULAR  
— HERRI IRRATIA —

Azaroak 13 • 20 • 27 eta Abenduak 4 • 11





11:00etan eta 15:30etan, Zelaixo Antzokian

## ESKOLA ANTZERKIA

# Eskola Antzerki Topaketak


EGUNA	ORDUA	TALDEA	ANTZEZLANA / K	Antzezleen maila/kop	IRAKASLEAK	IKUSLEAK
12-3	11:00	San Fidel Ikastola Gernika	Maritxu nora zoaz? eta korua	LMH 5-6 16	Iratxe Zabaleta Arantxa Omaetxebarria	LMH 4-5-6
12-3	15:30	Karmelo Etxegarai Ikastola Azpeitia	Urdaileko zirrara barregarria	DBH 2 6	Axen Escalada	DBH 1-2
12-9	11:00	Eguskitza Meabe Herri Ikastetxea Lemoa	Korbata saltzailea Tangala danba Altxorraren bila	LMH 4-5 44	Maribi Olabarri Amaia Arana	LMH 3-4-5-6
12-9	15:30	Arteko Gure Ama Herri Ikastetxea Artzeniaga	Arteko Gure Ama Aladino	LMH 2-4 26	Paki Ofizialdegi	HH eta LMH 1-2-3-4
12-10	11:00	Goizeko Izarra Ikastola Mutriku	Markes baten alaba	LMH 4-5-6	Lurdes Odriozola Elizabet Solabarrieta Jone Carbonell	LMH 4-5-6
12-10	15:30	Anoetako Herri Ikastola Anoeta	Bizi hadi Anttoni!	DBH 2-3 50	Miren Mujika	DBH 1-2



K

K

2



Abenduak  
3/9/10  
asteazkena/osteguna



astelehena 19:30etan, Udal Areto Nagusian

## Topaketen amaiera

### Euskadiko XVI. Euskal Antzerki Topaketen sari banaketa

#### Ikuslegoaren Saria

Sari honen botoa batz besteko baten bitartez ateratzen da. Ikusiko ditugun antzerki guztietan oinarrituko da.

Antzerki Amateur mailan 100.000 pzta  
Antzerki Profesional mailan 100.000 pzta

#### Euskal Antzerki Bultzatzaile Saria

Azpeitiko Topaketak Euskal Antzerkia bultzatzeko lana egin duen pertsona, erakunde edo/eta abar errekonozituz, aipamen berezi bat egingo dio.

#### Irrati Lehiaketaren Saria

##### D.B.H.ko 1 zikloa

3. saria 50.000 pzta.
2. saria 50.000 pzta.
1. saria 100.000 pzta.

##### D.B.H. 2. zikloa

3. saria 50.000 pzta
2. saria 50.000 pzta.
1. saria 100.000 pzta..


#### Kartel Lehiaketaren Saria

Irabazleak 100.000 pezetako saria jasoko du.

astelehena

21

Abenduak





**Zuzendaria**

Nekane Larrañaga

**Kultur Batzordea**

Nekane Larrañaga

Iñaki Eizmendi

Iñaki Etxezarreta

Jesus M. Larrañaga

M. Carmen Arocena

Aitor Larrañaga

**Kultur teknikaria**

Maria Pilar Arrieta

**Azala**

Mikel Arraunz Iturrioz

**Egileak**

TXAKEL

Azpiazu-Urarte S.L.

**Inprimategia**

MARTINEZ,C.B.





AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

